

Irurtzunen, bi mila eta bederatziko maiatzaren hamaikan, arratsaldeko zazpiak direnean, Ezohiko Bilkura egitearren Irurtzongo Udaleko Udalbatza, legeak agintzen duen moduan deituta, Batzar-gelan elkartu da Juan Jose Iriarte Vitoria alkate-lehendakaria buru dela. Bertan izan dira ondoren aipatzen diren zinegotziak:

Francisco Goicoechea Arbizu
Jose Javier Recalde Maestre
Saray Ongay García
Jose Luis Viñas Estudillo
Luis Enrique de la Calle Moreno
Maria Nieves Uterga Juango

Eta idazkaria naizen hau, Santos Iragui Hualde.

Ezin etorria adierazi dute Xabier Unanua Goicoecheak eta Jose Peinado Cuestak. Ez dira bertaratu, eta ez dute ezin etorria adierazi Eduardo Murugarren Francesek eta Francisca Arruabarrena Quintanak.

2009ko AURREKONTUA

Udalburuak, nahitaezko txostenak emanak direla, udalbatzari 2009rako aurrekontu orokorraren proiektua aurkeztu dio, eta horrekin batera aurrekontua gauzatzeko oinarriak. Udalburuak adierazi du aurkeztutako proiektua 2009ko apirilaren 29an Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak egindako bileran onespina emateko aurkeztu zela.

Jarraian honako hau erabaki da:

1.- 2009rako Aurrekontu Orokorraren proiektua onartzea hasiera batean. Aurrekontuak honako atal-egitura izanen du:

SARRERAK

A) Eragiketa arruntak:

1. kap.- Zuzeneko zergak:	590.559,00 euro
2. kap.- Zeharkako zergak:	70.700,00 euro
3. kap.- Tasak eta bestelako sarrerak:	530.329,00 euro
4. kap.- Transferentzia arruntak:	797.493,00 euro
5. kap.- Ondare-sarrerak:	19.482,00 euro

B) Kapital-eragiketak:

6. kap.- Inbertsio errealak besterentzea:	89.151,00 euro
7. kap.- Kapital-transferentziak:	582.411,00 euro
Sarrerak guztira:	2.680.125,00 euro

GASTUAK

A) Eragiketa arruntak:	
1. kap.- Langileen ordainketak:	800.612,00 euro
2. kap.- Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea:	889.426,00 euro
3. kap.- Interesak:	12.000,00 euro
4. kap.- Transferentzia arruntak:	290.688,00 euro
B) Kapital-eragiketak:	
6. kap.- Inbertsio errealak:	604.214,00 euro
7. kap.- Kapital-transferentziak:	8.485,00 euro
9. kap.- Pasibo finantzarioen aldakuntzak:	74.700,00 euro
Gastuak guztira:	2.680.125,00 euro

2.- 2009ko Aurrekontua gauzatzeko Oinarriak onartzea.

Onartu ondoren, Udalburuak esan du aurrekontu hauek zailak direla, egoera ekonomikoak negatiboki eragiten baitie obretatik datozen diru-sarrerei. Horrez gain, edonola ere, gizarte-arloetako gastuen kontu-sailetako kopuruei eusten ahalegindu da. Azkenik, langileen gastuak areagotu direla esan du, Nafarroako Enplegu Institutuak diruz lagundutako obrak egiteko langabetuak kontratatu izanagatik.

De la Calle jaunak ez dio eragozpenik ikusten aurkeztutako aurrekontuari, nahiz eta aurrekontu parte-hartzaileei esleitutako diru-kopurua zehatzago aztertu beharko litzatekeen, baldin eta jarraipenik izan behar ez badu.

EUSKARA ERABILTZEKO ETA SUSTATZEKO ORDENANTZA HASIERA BATEAN ONARTZEA

Alkatetzak proposatuta, eta honek UPN udal-taldeak gaia aztertzeke denbora gehiago nahiko lukeela esateko egin duen eskaera bati erantzunez dela esanda, puntu hori hurrengo baterako uztea erabaki da aho batez.

S1-U.8 UNITATEA URBANIZATZEKO LANAK BEHIN BEHINEKOZ HARTZEA

Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordeak 2009ko apirilaren 30ean egindako bilkuran onartutako proposamenarekin, Irurtzongo Udal Planeko S1-U.8 Unitatea urbanizatzeko lanak behin-behinekoz hartzea erabaki da aho batez.

GARAPENERAKO LANKIDETZA PROIEKTUETARAKO DIRU LAGUNTZEN DEIALDIA

Gizarte Ongizate Batzordeak 2009ko apirilaren 29an egindako bilkuran onartutako proposamenarekin, 2009. urterako garapenerako lankidetzaproiektuak diruz laguntzeko deialdia egitea erabaki da aho batez.

Viñas jaunak esan du 13.750,00 euro bideratuko direla proiektu horiek diruz laguntzeko, eta hori Aurrekontuan jaso dela.

EUSKARA ARLORAKO DIRU LAGUNTZAK

Euskara Batzordeak 2009ko maiatzaren 4an egindako bilkuran onartutako proposamenarekin, Herri Urratsi 1.000,00 euroko dirulaguntza ematea erabaki da, 2009ko aurrekontuko 4510 48201 kontusailaren kargura, Iriarte, Goicoechea, Recalde eta Viñas jaunen, eta Ongay andrearen aldeko botoekin. De la Calle jaunak eta Uterga andreak abstentziora jo dute.

HAUTESKUNDE MAHAIK OSATZEKO ZOZKETA

Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoko 26. artikulua xedatutakoa betez, 2009ko ekainaren 7an Europako Legebiltzarra aukeratzeko hauteskundeetarako hauteskunde-mahaiak osatuko dituzten mahaiburua, mahaikideak eta horien ordezkoezkoak izendatzeko zozketa egin da.

Zozketa, horretarako prestatua dagoen informatika-programa baten bitartez egin da, ausaz hasierako zenbaki bat hartuta, eta jauzi gisa modu berean, hau da ausaz, hartutako zenbaki bat gehituta.

Horrela aukeratutako pertsonak honako hauek dira:

A mahaia.- Mahaiburua: Beatriz Doray Sala

Lehen mahaikidea: Cristina Auza De Carlos
Bigarren mahaikidea: Idoia Ibero Baraibar
Mahaiburuaren lehen ordezkoa: Ainhoa Dorronsoro Guinea
Mahaiburuaren bigarren ordezkoa: Manuel Auzmendi Santander
Lehen mahaikidearen lehen ordezkoa: Blanca Ilundain Etxeberria
Lehen mahaikidearen bigarren ordezkoa: María Antonia Echeverria
Beloqui
Bigarren mahaikidearen lehen ordezkoa: Ana María Azcarate López
Bigarren mahaikidearen bigarren ordezkoa: Sergio Iñigo Domínguez

B mahaia.- Mahaiburua: Unai Razquin Iriarte
Lehen mahaikidea: Isabel Moreno García
Bigarren mahaikidea: Unai Lacunza Cuadrado
Mahaiburuaren lehen ordezkoa: Jesús María Saldise Betelu
Mahaiburuaren bigarren ordezkoa: Juan Carlos Olias Mariñelarena
Lehen mahaikidearen lehen ordezkoa: María Elena López Bautista
Lehen mahaikidearen bigarren ordezkoa: Enrique Carlos Tazón Blanco
Bigarren mahaikidearen lehen ordezkoa: Estefanía Palmero García
Bigarren mahaikidearen bigarren ordezkoa: Jesús Alberto Martín Dávila.

BATZORDEEN INFORMAZIOA

Ez dago besterik.

GALDE-ESKEAK

Ez dago.

Aztergai gehiagorik ez dagoela, eta arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamar minutu direnean, udalburuak bilkura amaitutzat jo du. Idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren Egiaztapena egiten dut.